

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUAREN BARNE-ERREGELAMENDUA

I. KAPITULUA. FUNTZIONAMENDUA ETA OSAERA

1. artikulua. Arau-esparrua

1.-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren (aurrerantzean Kontseilua) osaera, izendapena eta funtzionamendua Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 3., 4. eta 5. artikuluen arabera arautzen da.

2.- Ordezko izaerarekin, Sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko urriaren 2ko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluko kide anitzeko organoei buruzko xedapenak aplikatuko zaizkio Kontseiluaren funtzionamenduari.

2. artikulua. Osaera

1.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 3. artikuluen arabera arautzen da Kontseiluaren osaera.

2.- 158/2008 Dekretuaren aipatutako 3. artikuluen 3 h) idatz-zatiak aipatzen dituen Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kide ez diren garapenerako lankidetzaren euskal gizarte-eragileen sei pertsona ordezkariek honela aukeratuko dira:

- i. Kontseiluaren presidenteak egingo du eta ebatziko du deialdia.
- ii. Kontseiluko idazkariak hartuko du bere gain deialdiaren izapidetzea eta aurkeztutako proposamenen balorazio teknikoa, eta batzorde iraunkorrari bidaliko dio balorazio hori.
- iii. Batzorde iraunkorrak ebazpen-proposamen bat helaraziko dio presidenteari, idazkariak egindako balorazio teknikoari jarraikiz. Eragile batek aurkeztutako kandidatura balioetsi behar bada, eragile horrek ez du erabaki horretan parte hartuko.
- iv. Deialdiak honako informazio hau bildu beharko du gutxienez: xedea, baremazio-irizpideak, balorazio-batzordea eta epeak;
- v. Izendapenen hirugarren indarraldi-urtean, profil interesgarrien proposamen bat egingo du Kontseiluaren osoko bilkurak hurrengo aldirako.
- vi. Ordezkatutako euskal gizarte-eragileen aniztasun albait handiena ordezkatuko dute aukeratutako pertsonak.

3. artikulua. Kontseiluaren funtzionamendua

1.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 5. artikuluan arautzen da Kontseiluaren funtzionamendua.

2.- Kontseiluak osoko bilkura bidez edo batzorde bidez funtzionatu dezake, eta lantaldeen laguntza jaso dezake bere funtzioak egikaritzeko 158/2008 Dekretuaren aipatutako 5. artikulua 3. zenbakian aurreikusitakoaren arabera.

II. KAPITULUA. KONTSEILUA OSATZEN DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

4. artikulua. Eskubideak

1.- Bileren deialdia –gai-zerrenda eta aztertu beharreko gaien dokumentazioa barne– erregelamendu honetan finkatutako epeen barruan jasotzea.

2.- Batzorde iraunkorrari osoko bilkuran aztertu beharreko gaiak helaraztea, zuzenean edo Kontseiluko idazkariaren bidez, programatzeko eta gai-zerrendan barne hartzeko.

3.- Debateetan modu aktiboan parte hartzea eta proposamenak egitea.

4.- Eratzen diren batzorde eta lantaldeetan parte hartzea eta, kasuan-kasuan, pertsonak proposatzea lantaldeetan parte hartu dezaten.

5.- Kontseiluaren esku dagoen dokumentazioa eskuratzea.

6.- Kontseiluko osoko bilkurak, batzordeek eta lantaldeek garatzen dituzten gai edo azterlanen informazioa izatea.

7.- Kontseiluko idazkariaren bidez jasotzea bere funtzioak egikaritzeko beharrezkotzat jotzen diren datu eta dokumentuak.

8.- Boto-eskubidea egikaritzea, aktan bere aldeko botoa, bere abstentzioa edo bere boto partikularra jaso ahalko duelarik, eta aktan horri dagokionez egokitzeak jotako dokumentazio guztia eransteko eskatzea.

9.- Galde-eskeak egitea.

10.- Kontseiluko kide izateagatik dagozkion beste funtzio guztiak.

5. artikulua. Betebeharrak

1.- Osoko bilkuretara bertaratzea, baita kide den batzordeetara eta lantaldeetara ere.

2.- Osoko bilkurak hori erabaki duelako berezitat hartutako gaiei buruz zuhurtziaz aritzea.

6. artikulua. Kalte-ordainak

1.- Kontseiluko kideek ez dute inolako ordainsaririk jasoko beren funtzioak egikaritzeagatik.

2.- Haatik, langileen ordezkariak eLankidetzaren aurrekontuaren kargura jasoko dute kalte-ordaina osoko bilkura egiten den lekurako joan-etorri gastuengatik, indarrean dagoen legeriaren arabera.

III. KAPITULUA. KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAK

7. artikulua. Bilkuren deialdia

- 1.- Kontseiluaren idazkariari dagokio osoko bilkuren deialdia egitea presidentearen aginduz eta batzorde iraunkorraren barruan adostutako gai-zerrendaren arabera.
- 2.- Gutxienez egutegiko hamabost eguneko aurrerapenarekin egingo da osoko bilkuren deialdia.
- 3.- Gai-zerrendarekin eta bilkuran aztertu beharreko gaiak buruzko dokumentazioarekin batera egingo da deialdia. Gai-zerrendan zehaztuko da aztertu beharreko gaiak informatiboak diren, kontsultazkoak diren edo txostena egitea edo erabakiren bat hartzea eskatzen duten.

8. artikulua. Deliberazioak

- 1.- Presidenteak bilkurak zuzenduko ditu, debateak antolatuko ditu, eta bilerak behar bezala garatzeko eta bertaratutakoen parte-hartze aktiboa ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.
- 2.- Presidenterik ez badago, presidenteordea izango da bileraren buru, eta presidenteorderik ere ez badago, idazkariak proposatuko dio osoko bilkurari norbait aukeratzea pertsona hori bileraren buru izan dadin.
- 3.- Era berean, arrazoi urgenteengatik eta presidenteak proposatuta, osoko bilkurak bilkuren hasieran adostu ahalko du gai-zerrendan aurreikusi gabeko gaiak aztertzea, betiere bertaratutako kideen gehiengo simple bidez.

9. artikulua. Osoko bilkurak erabakiak hartzea

- 1.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 2.2 artikuluan aurreikusitako Kontseiluaren funtzioen barruan, erabakiek bozketa behar badute, boto-eskubidea duten bertaratutako pertsonen gehiengo simple bidez hartuko dira erabaki horiek. Berdinketa izanez gero, presidenteak izango du kalitate-botoa.
- 2.- Kontseilutik ateratako dokumentuak –txostenak, irizpenak eta proposamenak– publikoak izango dira sarbide libreko bitartekoaren bidez edozein interesdunentzat.

10. artikulua. Bilkuren aktak

- 1.- Osoko bilkura bakoitzaren akta idatziko du idazkariak, kontseiluko kideei bidaliko zaie eta hurrengo osoko bilkuran aztertuko dute onartzeko.
- 2.- Bertaratuen zerrenda, bilkuraren gai-zerrenda, bikura egin den lekua eta eguna, deliberazioen laburpen bat eta hartutako erabakien edukia bilduko ditu aktak.
- 3.- Aktak onartu ondoren eta idazkariak presidentearen oniritziarekin sinatutakoan, publikoak izango dira, edozein interesdunen eskueran egongo dira eta Kontseiluko idazkariaren zaintzapean geratuko dira.

IV. KAPITULUA. KONTSEILUKO IDAZKARITZA

11. artikulua. Kontseiluko idazkaritza

1.- Kontseiluko idazkaritzari dagokio Kontseiluaren administrazio-kudeaketa, osoko bilkurari dagokionez zein batzorde iraunkorrari eta beste batzorde edo lantaldeei dagokienez.

2.-Idazkaritzak hitza izango du deliberazioetan, baina botorik ez.

3.- Honako hauek dira idazkaritzaren lanak:

- a. Bilkuren deialdiak egitea eta bidaltzea, Kontseiluko presidentek proposatuta.
- b. Presidenteari laguntzea idazkari izateagatik dagozkion gai guztietan.
- c. Jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak, edo bere karguarengatik haien berri izan behar duen bestelako idazki mota guztiak jasotzea.
- d. Modu eguneratuan eramatea akten artxiboa, Kontseiluko kide diren erakundeen erregistroa, baita Kontseiluko titular eta ordezkoen zerrenda ere.
- e. Kontsulten, erabakien eta onartutako irizpenen, boto partikularren eta bere zaintzapean utzitako beste dokumentu batzuen ziurtagiriak ematea.
- f. Kontseiluko akten eta dokumentuen publikotasuna bermatzea, eskueran dituen bitartekoen bidez.
- g. Kontseiluko organoek agintzen dizkieten beste guztiak.

V. KAPITULUA. BATZORDE IRAUNKORRA

12. artikulua. Osaera, funtzioak eta bozketak

1.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 5.4 artikuluan eta barne-erregelamendu honetan ezarritakoak dira batzorde iraunkorraren osaera eta funtzioak.

2.- Kontseiluko presidentek egingo du batzordearen deialdia, 48 orduko gutxieneko aurrerapenarekin.

3.- Kontseiluko idazkari-kargua duen pertsona bertaratuko da batzordearen bileretara, hitzarekin baina botorik gabe, gai-zerrenda definitzen eta aktak egiten laguntzeko, eta hartutako erabakiak betetzen direla zaintzeko.

4.- Boto-eskubidea duten bertaratutako kideen gehiengo simple bidez hartuko dira erabakiak eta ebazpenak. Berdinketa izanez gero, presidentek izango du kalitate-botoa.

13. artikulua. Urteko programazioa

1.- Batzorde iraunkorrak Kontseiluaren urte osorako ohiko bilkuren gutxi gorabeherako egunak eta gai-zerrenda posibleak programatuko ditu urteko lehenengo hiruhilekoan egingo den bileran.

2.- Batzordeak egiten dituen bileretan zehaztuko da programazio hori.

3.- Saioen programazioa egiteko, eta bilkuren ordutegiak eta iraupena ezartzeko ordezkarien zaintza-premiak izango dira kontuan betiere.

14. artikulua. Derrigorrezko txostenak egitea

1.- Batzorde iraunkorra arduratuko da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 2.2 artikuluan araututako derrigorrezko txostenen proposamena prestatzeaz.

2.- Txostena eskatzen duen organoak batzorde iraunkorrarekin adostuko du lan-kronograma bat txosten hori emateko.

3.- Erakunde eskatzaileak ez du txosten horiek egiteko proposamenean parte hartuko, baina deliberazioan eta kontrastean parte hartu ahalko du batzorde iraunkorreko kideek hori eskatzen badute.

4.- Batzorde iraunkorreko kide diren pertonez gain, arloan interes berezia duten Kontseiluko beste pertsona batzuek parte hartu ahalko dute txostenaren elaborazioan.

5.- Kontseiluko idazkaritzak beharrezko euskarri logistikoa emango du txostena egiteko (deialdia, lekua eta abar).

VI. KAPITULUA. BATZORDEAK ETA LANTALDEAK

15. artikulua.- Batzordeen eta lantaldeen sorrera, osaera eta funtzionamendua

1.- Kontseiluko osoko bilkuraren erabaki bidez sortu ahalko dira Kontseiluari bere lanean lagungarriak izango zaizkion izaera ez-iraunkorreko beste batzorde eta lantalde batzuk, eta dagokien sorrera-erabakian ezarriko dira organo horien osaera, xedea, jarduketa-erregimena, funtzioak eta iraupena.

2.- Kontseiluaren izaera mistoa eta parekidea, instituzionala eta soziala errespetatuko da, ahal dela, batzordeen osaeran. Proporzionaltasun hori ez da beharrezkoa izango lantaldeetan; Kontseiluko pertsona kideek beste pertsona batzuk izendatu ahalko dituzte beren ordezkari izateko, eta Kontseiluan ordezkapenik ez duten beste pertsona batzuen edo jorratu beharreko arloan adituak diren beste pertsona batzuen parte-hartzea ere proposatu ahalko dute. Osoko bilkurak onartu beharko ditu izendapen horiek.

3. Edozein kide izan daiteke batzorde eta lantalde horietako presidente, osoko bilkuran onartzen denaren arabera.

4. Osoko bilkurak berretsi beharreko urteko lan-plan bat egin beharko du batzorde edo lantalde bakoitzak. Batzorde edo lantalde horiek aldian behin emango dizkiote kontuak osoko bilkurari.

5.- Batzorde edo lantalde horiek osoko bilkuraren onarpen espresu bidez desegino dira.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu honen edozein aldaketa-proposamen Kontseiluaren presidentek aurkeztu beharko du, eta osoko bilkuraren esku utziko du aldaketa eztabaidatzeko eta onartzeko erantzukizuna. Gehiengo sinple bidez onartu beharko dira aldaketak

(2022.09.28ko ohiko bilkuran eztabaidatu eta onartzeko aztertu zen)